

INDARKERIA MATXISTAREN AURKA, KOEDUKAZIOA

AZAROAREN 7

INDARKERIA MATXISTEN
AURKAKO IBILALDIA

AZAROAREN 25
EMAKUMEEN AURKAKO

INDARKERIA
EZABATZEKO
NAZIOARTEKO EGUNA



irakaskuntza

**Bortizkeria
matxistaren aurkako
hezkuntza
proposamenak**

**Haur, Lehen eta Bigarren
Hezkuntzako geletan
lantzeko**

2015eko abendua

Sarrera

Tamalez, urtero, azaroaren 25ean, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko eguna ospatzean, emakumezkoen aurka gizonezkoek erabiltzen duten indarkeria kasu gehiegiren aurrean, gure gaitzespena azaldu behar dugu; arrazoi bakarra ez bada ere, sexuen artean ematen diren ezberdintasunean eta botere erlazioetan funtsezko sustraiak dituen fenomenoa. Ez da gizonezkoen sortzetiko ezaugarria, baizik eta eman zaien gizarte estereotipoaren gehiegizko baliatzearen ondorioa: portaera bortitzen eta emakumeenganako mendekotasunaren bidez gizontasuna erakustea, hain zuzen ere.

Gure herrian egunero ikus dezakegunez, genero indarkeriari kontra egiteko Lege Integrala izateak, hori garrantzitsua izan arren, ez da lotsatzen gaituen gizartearen gaitz honekin bukatzeko nahikoa berme. Ezinbestekoa da, alde batetik, gizarte zibil osoak, administrazioek eta erakundeek eremu guztietan, indarkeria matxistari aurka egiteko bere konpromiso iraunkorra sendotzea; eta, bestetik, ezinbestekoa da ere, Legeak beharrezko garapen normatiboa izatea, betetzeari bide eman diezaion. Tamalez, ematen ari ez diren bi baldintza.

CCOOeko gainerako multzoekin batera, indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeen prebentzio eta trataerarako beharrezkotzat jotzen diren baliabideetan emandako murrizketak salatu nahi ditugu, baita genero indarkeriaren emakume biktimen laneratze eta gizarteratze berariazko Jarduera Programaren eta enplegua sustatzeari buruzko laguntzen, neurrien eta hobarien urritasuna ere.

Hezkuntzarekin dugun berariazko konpromisotik -pertsonek arteko berdintasunezko harremanetarako mesedegarri izango diren aldaketak sustatu eta bereizkeria mota guztiekin bukatzeko, bereziki deitua den esparrua-, zera azpimarratu behar dugu: emakumezkoenganako indarkeriaren aurkako lana burutzeko gure ikastetxeetan beharrezkotzat jotzen diren baliabideak areagotu behar direla. Gizonezkoen Indarkeria hori ez baita berezkoa, ikasia baizik eta, beraz, begirunean, tolerantzian eta berdintasunean oinarritutako gizarte balio positiboek ordezkari dezakete indarkeria hori. Gainera, genero indarkeria prebentzio ekintzen bidez hobeto baztertuko dugula uste baitugu; aipatu ekintzok, koedukazioaren ikuspegitik, sexuen arteko harreman onak ikasteko ikuspegi positibo batetik begiratuta.

Gure hezkuntza alorrean, 2004an Lege Integralean xedatutakoa, salbuespen batzuk izan ezik, ez da modu hedatuan burutzen ari: testu liburuek sexismoaren ebidentzia garbiak erakusten jarraitzen dute; eskola kontseiluek ez dute sexuen arteko berdintasuna sustatzeko baliabiderik; irakasleen hasierako heziketak koedukaziorako prestakuntza falta du. Gainera, ez da hutsune hori gainditzeko prestakuntza iraunkorra sustatzen...

Gainera, ikastetxe publikoetako baliabideetan eman diren murrizketek, hezkuntza-legearen aldaketa berriek, sexuagatik ikasleak bereiztuen dituzten ikastetxeen indartzeak, Herritartasunerako Hezkuntza irakasgaiaren ikasle guztientzat derrigorrezkoa izatea desagertzeak gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aurrerapena, genero indarkeriaren aurka borrokatzeko funtsezko osagaia, larriki kaltetuko dute.

Horregatik, Lege Integrala hezkuntza jardueran zehaztu dadila eskatzen jarraitzen dugu. Horretarako, hezkuntza administrazioek beren ikastetxeetan aipatu Legeak ezartzen dituen neurri guztiak garatu behar dituzte; LOMCE indargabetzea eskatzen jarraitzen dugu, berdintasunezko harremanak sendotzearen aurkako alderdiez betetako legea.

Zeregin honetan, irakasleek eta hezkuntzaren gainerako langile guztiek inplikatu behar dute, dudarik gabe. Bere betekizuna, familien laguntzarekin, harreman demokratiko eta berdintasunezkoen aldeko begirunezko hezkuntza testuinguruak sortu, genero-estereotiporik gabeko gizon eta emakumeen arteko berdintasunezko hezkuntza sustatu eta ikastetxeetan eman daitekeen indarkeria edozein zantzuri aurka egitea.

CCOOen Irakaskuntza Federazioak, sindikatu soziopolitikoakenez, bereizkeriarik gabeko gizartearen alde dagoena, emakumezkoen aurkako indarkeriari uko egiten diona, neska eta mutilentzat bere banakako eta gizarte-garapenerako balio positibo berberak, sexua gorabehera, sustatu eta koedukazioa bultzatzen duena, indarkeria matxistaren aurkako hezkuntzari lagundu nahi dio, irakasleen eskura gelako jardueran lagundu dakiekeen materialak jarrita, bereziki azaroaren 25eko testuinguruan eta azaroaren 7rako antolatzen ari den mobilizaziorako.

2015eko azaroa

Francisco José García Suárez, Idazkari Nagusia
Carmen Heredero de Pedro, Emakume, Berdintasun eta Gizarte-Politikarako Idazkaria

Aurkibide

	Orrialdea
Sarrera	2
CCOOeko Irakaskuntzako Federazioaren Erabakia	5
Mugimendu Feministaren Adierazpena	7
Gelan lantzeko proposamenak	9
Haur Hezkuntza	10
Lehen Hezkuntza	12
Bigarren Hezkuntza	14
Eranskinak	16
I Eranskina. Jardueretarako materiala (A, B, C, D eta E orriak)	
II Eranskina. Martxoaren 22ko 2007/3 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako.	
III Eranskina. Genero indarkeriaz, 2014ko hildakoen datuak.	
IV Eranskina. Genero indarkeriarekin bukatu?, Marina Subirats.	
V Eranskina. Beste hezkuntza proposamenen:	
- “Indarkeriaren aurka elkartuz, berdintasunari aukera ematen diogu” (Cordobako CCOOeko Irakaskuntza Sindikatua).	
- Gaztela eta Leongo CCOOeko Irakaskuntzaren Federazioaren kontaketa laburren I Lehiaketa.	
VI Eranskina. Interesa duten estekak.	

CCOOeko Irakaskuntzaren Federazioaren Erabakia

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO ESTATU MAILAKO IBILALDIA

2015EKO AZAROAREN 7

Langile Batzordeetako Irakaskuntzaren Federazioak alde eta bat egiten du hurrengo **AZAROAREN 7** rako mugimendu feministak indarkeria matxistaren aurka **deitutako Estatu mailako Ibilaldiarekin**, emakumeen aurkako edozein motatako indarkeriaren kontra gaitzespenik irmoena azaltzeko, hori baita emakume eta gizonen arteko desberdintasunaren seinalerik ikaragarriena eta giza-eskubiden aurkako erasorik larriena.

Ibilaldi honetaz zera nahi dugu:

- Emakumeen aurkako etengabeko indarkeriarekin bukatu eta ezabatzeko botere publikoen eraginkortasunik eza eta pasibotasuna salatzea; indarkeria matxistaren **emakume biktimen prebentzio eta trataerarako beharrezko baliabideek jasan duten ezabaketa edo murrizketek** egoera larraigotu baitute.
- Enplegua sustatzeari** eta genero indarkeriaren emakume biktimak laneratu eta gizarteratzeko berariazko Ekintza Programari dagozkien **laguntza, neurri eta hobarien** urritasuna salatzea.
- Ereku guztietan: **hezkuntzan, osasunean, polizialean, juridikoan** etab., **berdintasunerako araudiaren ezartze osoa erreklamatzeari**, honek, genero indarkeriaren aurrean, aipatu eremuotan, jokabide transbertsal eta integrala erabiltzera behartzen baitu. Horretarako, inplikaturako administrazio guztien ekintza koordinatu eta bateratuak behar dira.
- Prebentziorako eta biktimen zaintzarako**, Auzitegi espezializatuak eta arriskuaren balorazio integrala neurtzeko Unitateak sortzea, aurrekontuko diru-hornidura nahikoarekin.
- Prozesu ezberdinetan esku hartzen dutenei (epaileak, fiskalak, abokatuak, segurtasun indarrak, talde psikosozialak, hezkuntza eta osasun sistemak, publizitatea eta komunikabideak) aldaketa kulturala eta prebentzio ekintza bideratuko dituen **prestakuntza eta sentsibilizazio bermea exijitzea**.
- Hezkuntza administrazioei zera exijitzea**: 2004ko Lege integralean egon eta oraindik aplikatu gabe dauden hezkuntzaren alorreko **neurri ezberdinak** gauzatzea.
- Mutil eta neskenzat baliotako hezkuntza berbera erreklamatzeari, aurrekoei indarra eta bortizkeria eta bigarrenari pasibotasuna eta men egitea esleitzen dien hezkuntza estereotipatua saihestuz.

- Hezkuntza sisteman parte hartzen dutenentzat -irakasleak eta irakasle ez diren langileak- berdintasunari eta genero indarkeriaren aurkako jarduerari dagokienetan, **prestakuntza eta sentsibilizazioa gehitzea erreibindikatzea.**
- Gatazkak bakean konpontzeko, genero indarkeriaren egoeretarako eta sexuen arteko berdintasunaren aldeko heziketarako, **ikastetxeeak baliabide nahikoez hornitzea exijitzea.**

CCOOen Irakaskuntza Federazioak, HONEN ALDEKO KONPROMISOA ADITZERA EMAN NAHI DU:

- **Negoiazio kolektiboaren alorrean, legalki ezarrita dauden lan-, gizarte- eta ekonomia-eskubideak zabaldu eta hobeagotzea.**
- **Prestakuntza eta sentsibilizazio kanpaina dibulgatzaileak garatzea, emakumen kontrako indarkeria erazteko.**
- **Lan alorreko indarkeriari kontra egitea, sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko-jazarpenaren aurrean, jardunbide-protokoloen negoziazioa sustatuz.**
- **Hezkuntza elkartearekin elkarlanean aritzea, ikastetxeetan begirunezko hezkuntza-testuinguruak sustatzeko, harreman demokratiko eta berdintasunezkoak bideratzeko, bere alorrean eman daitekeen indarkeria edozein zantzuri aurre egin eta genero estereotiporik gabeko emakumeen eta gizonezkoen berdintasunerako heziketa integrala sustatuz.**

LANGILE BATZORDEEN IRAKASKUNTZA FEDERAZIOAK, HEZKUNTZA ELKARTE OSOARI ETA HONEN ERAKUNDE SOZIAL ETA SINDIKALEI AZAROAREN 7KO MOBILIZAZIOAN PARTE HARTZEKO DEIA EGITEN DIE.

LANGILE BATZORDEEN IRAKASKUNTZA FEDERAZIOAK “INDARKERIA MATXISTEN AURKAKO ESTATU MAILAKO IBILALDIA. 2015EKO A7” BATERAKO ADIERAZPENARI BAIETZA ETA ZABALKUNDEA EMATEN DIO.

<http://marcha7nmadrid.org/wpcontent/uploads/2015/08/Manifiestopdf.pdf>


Zuzendaritza Batzordea, 2015eko urriaren 8

Mugimendu Feministaren Manifestua

Indarkeria Matxisten Aurkako Estatu mailako Ibilaldia

Madril. Azaroaren 7

Mugimendu feministak zera SALATZEN du: indarkeria matxista GENERO EZBERDINTASUNAREN seinale-rik bortitzena dela eta gure gizarteak jasaten duen EMA KUMEEN GIZA ESKUBIDEEN urratzerik larriena.



1995. urtearen geroztik, terrorismo matxistak 1.378 emakume erail ditu. Aurtengo urtearen hasieratik, 70 feminizidio eman dira eta gizonezkoek burututako emakumezkoen beste erailketak: 2015eko udaran bakarrik, beren bikoteek, gurasoek edo amaren bikoteek 37 emakume eta 8 adingabe hil dituzte. Emakumeek zein adingabeek era ezberdinetako indarkeria patriarkala jasaten dute. Eta hori izozmendiaren tontorra besterik ez da.

Azken urteotan, zenbait alorretan -baliabide publiko orokorretan, sexu- eta ugalketa- eskubideetan, 16 eta 17 urteren arteko adingabeen haurdunaldiaren borondatezko eteteen- murrizketa sistematikoak jasan ditugu; baita indarkeria matxistaren kontrako baliabide espezializatueta ere. Kultura patriarkalak errudun egiten gaitu, eta gizarteak, komunikabideek eta botere publikoek ez diete mito misogino eta antifeministei aurre egiten.

Mugimendu feministak uste du, alor ezberdinetan bizi dugun indarkeria, ezberdintasuna onartu eta emakumezkoen sinesgarritasuna eta aginpidea kentzen dien gizartean ematen dela. Matxismoak, gure balioen galera, gure gorputzak gauza bihurtzea eta gure erabakienganako begirune falta pizten du. Halaber, eraso hauek maskulinitasun hegemonikoari erantzuten ez dioten pertsonak jasaten dituzten erasoetatik bereizezinak dira.

Hori guztiagatik, mugimendu feministak indarkeria matxistaren aurkako ibilaldirako dei egiten du azaroaren 7an,

ZERA EXIJITZEKO:

- Terrorismo matxistaren aurkako borroka Estatu arazoa izan dadila.
- Istanbuleko Hitzarmena garatu eta osatzea eta CEDAW-en gomendioak betetzea eta baita 2004/1 legea berritzea ere, emakumen aurkako indarkeria mota guztiak bertan islatu daitezen.

- Gizarte guztia eta bere erakunde eta instituzioak borroka honetan konprometitzea.
- Borrokak eta baliabideek, bikoteak edo bikote ohiak eragidako indarkeria zein sexu erasoak, lantokiko sexu jazarpenak, sexu- eta lan-esplotazioaren bidezko emakumeen eta haurren trafikoa eta indarkeria matxista osoa kontuan har daitezela.
- Gobernuaren instantzia guztiak indarkeria matxistaren prebentzioan eta erauztean benetan konprometitu daitezela eta baita indarkeria egoeran dauden emakumeen laguntzan eta arazoaren konponketan ere, emakume horien egoera administratiboa edozein izanda ere.
- Afektatuen zaintza indartu dadila, irtenbide ezberdinak bideratuz, emakumeen zein seme-alaben benetako bizitza-, ekonomia- eta gizarte-berreskuratzea eman dadin.
- Prebentzioa lehentasunezko politika izan dadila, ondorengo hau kontuan izango duena: ziklo guztietako koedukazio sistema, indarkeria matxistaren kontrako borrokan prozesuetan, komunikabideetan, ekoizpen kulturalen eta gizarte zibilian parte hartzen duten langileen berriazko prestakuntza.
- Komunikabideek indarkeria matxista ezberdinen trataera egokia egiteko konpromisoa har dezatela, agerian jarrita, horien trataeran sentsazionalismo gaxotia saihestuz eta sexistak ez diren irudiak eta hizkuntza erabiliz.
- Epailak ezarritako jagoletza partekatua eta tratu txarren emaila erruztatuen euren adingabekoenganako bisitak ezabatzea. Tratu txarren emaila guraso-ahalaerretiratu eta ez ematea.

Kontzientziatu gaitzen, behingoz, Matxismoak Erail egiten duela eta demokraziak behar duen bizikidetasuna ezinezkoa bihurtzen duela.

Hemen gaude, pertsona, erakunde, alderdi politiko eta gobernu guztiei dei egiteko ez daitezela ankerkeria honen lagun izan. Gizateriaren erdiak bizitzen jarraitu behar du, ezin dezakegu erailketa gehiagorik onartu.

Horregatik, azaroaren 7an, Madrilen, gurekin nahi zaituztegu. Bertan, 12:00etan Prado pasealekuko Osasun Ministeriotik irten eta Espainia plazara helduko den ibilaldian.

BIZI NAHI DUGU!!! ASKI DA!!!

Ikasgelan lantzeko proposamenak

Indarkeria matxistaren aurkako sentsibilizazio eta prestakuntzak gure ikastetxeetan eguneroko betekizuna izan behar duela uste dugu; baterako hezkuntza eredu bat gauzatzetik abiatuta, ikuspegi positibo batetik, berdintasunezko harremanak sustatuko dituen. Baina, gure gizartean indarkeria matxistak ondorio beldurgarriak dituenez, emakume askoren erailketa barne, eta indarkeria horren aurka borrokatzeko beharraz jabetzeko mundu osoan egun bat ezarri den, gure geletan ere merezi du azaroaren 25ean egun hori ospatzea, errealitate beldurgarri hori agerian jarririk.

Aipatu helburua geletara hurbiltzeko, guztion artean elkarlanean aritzeko jarduera proposamen batzuk burutu ditugu. Jarduera proposamen bakoitza hezkuntza maila bati dagokio, edukiak ikasleen gaitasun eta interesei egokitzeko eta, kasu guztietan, zera lortu nahi dugu: ikasle eta irakasleak, batera, lan-esparru bat sor dezatela, oro har, indarkeria portaeren arrazoi eta agerpenetan sakontzeko aukera bideratuko duena eta, bereziki, indarkeria matxistarenetan; eta baita indarkeriari aurka egitekoan ere, begirune giroan, talde-lana eta adierazpen askatasuna indartuko dituen.

Abiapuntua egituratu nahi dugu, ikasleek sexuen arteko, bereziki, eta pertsonen arteko harremanei buruz bere sentimenduen, iritzien eta bizipenen adierazpen askatasuna izan dezaten, ikasleek zalantza gehiago dituzten gaiak edo ikastetxean edo gelan aurki daitezkeenak azpimarratuz, betiere, edozein motatako indarkeriak ez duela inolako justifikaziorik eta gertatuz gero, gaitzespenetik.

Haur Hezkuntza

Geure burua zaintzen dugu!

Helburuak

- Pertsonen arteko zaintzaren eta konfiantzaren, elkar ulertze eta laguntzaren esparruen garrantzia baloratu, familian ez ezik baita lagunartekoan ere.
- Bizikidetzaren eta berdintasuneko harreman on batzuen oinarriak ulertu eta horiek bideratzen dituzten arauak barneratu.
- Gizartean zein ikasgelan dagoen aniztasuna ezagutu, ulertu eta positiboki baloratu.
- Sentimenduen adierazpenari eta zaintzeari buruzko hiztegia ezagutu eta erabili.
- Gure nahitasunen azalpen fisiko eta ahozkoa esperimendu.

Jardueren garapena

1.- Sentimenduen eta nahitasunen adierazpena

Ikasleen artean enpatia landuko dugu eta ikaskideei lagutzeko gaitasuna. Horretarako, haurrak biribilean eseriko dira. Une horretantxe edo hurbileko beste batean, nahigabea edo ondoeza senti dezaketelakoari buruzko galderak egingo ditu irakasleak. Galdera hauei baietza ematen dioten ikasleak zirkuluaren erdian kokatuko dira eta besteak lasaitak sentiarazten saiatuko dira; horretarako, hitz kontsolagarriak esango dizkiete, ferekatu...

Haur guztiak bi betekizunetatik, zaintzaileak eta zainduak, pasatzea lortu nahi du jarduerak. Ondoren, taldeko hausnarketa egingo da, gaizki sentitzen garenean zergatik den garrantzitsua laguntza eskatzea eta baita besteei laguntza eskaintzea ere.

Egin daitezkeen galderen artean, honako hauek daude: Nork du zauriren bat (gorputzaren edozein ataletan)? Nor haserretu da bere lagunarekin/anaiarekin, beste edonorrekin? Aste honetan, nork izan du tripako mina?, etab... Gelan, Ikasleen artean arazoak eman izan balira, hemen ere txerta litezke, talde osoa inplikatu eta irtenbidea bila dezaieten.

2.- Puzlea

Gelako ikasleak 4 partaidetako multzotan banatuko dira eta bakoitzari B orriko atalak emango zaizkio, markatutako lerroetatik moztuta (I eranskina), puzlea osatzeko; behar izanez gero, ereduzko irudi osoa (I eranskinaren A orria) agerian izango da. Puzlea bukatu ondoren, irudiak aditzera ematen diena adieraziko dute; atsegin zaien ala ez, zer den gehien atsegin zaiena... Alaitasuna, adiskidetasuna, aniztasuna, neskak, mutilak, azalaren kolorea, adin ezberdinak, gaitasun ezberdinak, harreman onak, kontzeptuak azaltzen saiatuko gara,...

Ebaluazioa

Zera baloratuko da: ondorengo honen ulermen maila eta praktika:

- Pertsonen onurarako balio positiboak.
- Besteak ondo tratatu eta laguntzearen garrantzia eta baita, behar izanez gero, laguntza eskatzea.

Lehen Hezkuntza

Neska-mutilak elkarrekin ondo pasatzen dira

Helburuak

- Taldean jardun, ikaskideekin eta azaltzen diren iritziekin begirune jarrera mantenduz.
- Bizikidetzeta eta berdintasunezko harreman onen oinarriak ulertu eta horiek bideratzen dituzten arauak barneratu.
- Ikasgelan zein gizartean dagoen aniztasuna ezagutu, ulertu errespetatu eta positiboki baloratu.
- Indarkeria matxista sustatzen duten ereduak (gizontasun eta mendekotasun estereotipoak) baztertu.
- Pertsonen prestakuntza osorako eta pertsonen arteko harremanetarako -baita giza- eta gizarte-balioetan ere, hezkuntzak duen garrantziaz jabetu.
- Sexuen arteko berdintasunari buruzko hiztegia ikasi eta erabili.

Jardueren garapena

Lehendabizi, gelako ikasleak 4 partaidetako multzotan banatuko ditugu eta talde bakoitzari A orriaren kopia bat emango zaio (irudia: neska-mutilak ongi pasatzen).

Gela osoak taldean irudia deskribatuko du. Irakaslea saiatuko da alaitasuna, adiskidetasuna, aniztasuna, neskak, mutilak, azalaren kolorea, adin ezberdinak, gaitasun ezberdinak, harreman onak, kontzeptuak azaltzen...

C eta D orrietatik moztutako atalak emango zaizkio talde bakoitzari (I eranskina), A orriaren (I eranskina) gainetik jarrita, irudiarekin bat datorren puzlea osatzeko. Bistan denez, C orriaren atalak, balio positiboak, bat etortzeari aukera emango diote, D orriarenak, berriz, balio negatiboak, ez dira ereduazko irudiarekin bat etorriko. Haurrek, talde txikietan, erabakiko dute zein hitz erabili eta zein ez.

Talde bakoitzak gainerako gelakideei erakutsi beharko die kokatu ahal duen atal bat eta kokatzerik izan ez duen bestea.

Hau egin ondoren, gela osoak **INDARKERIA MATXISTAREN AURKA, KOEDUKAZIOA** bideoa ikusiko du.



Ondoren, bi material hauei buruz eztabaidatuko da. Irakasleak sortutako zalantzak argituko ditu eta hitz ezberdinei, puzlearen irudiari eta bideoari buruzko iritzia komentatzera animatuko ditu ikasleak, horrela, adierazten diren balioei eta harreman onetan duten eraginei buruzko hausnarketa eginez.

Saioa bukatzean ikasgelaren edo ikastetxearen kokaguneraren batean puzleen erakusketa egingo da, elkarrekin landutako praktika onen oroimen gisa.

Ebaluazioa

Zera baloratuko da: ondorengo honen ulermen maila eta praktika:

- Talde lana, ordenaz eta begirunez.
- Besteekiko harremanetan pertsonen onura egiten dien balio positiboak.
- Matxismoaren eta indakeria jokabideen detekzio eta gaitzespena.
- Gatazka egoerak elkarrizketaren bidez konpontzeko beharra.



Bigarren Hezkuntza

Indarkeria matxistaren aurka, koedukazioa

Helburuak

- Taldean jardun, ikaskideekin eta azaltzen diren iritziekin begirune jarrera mantenduz.
- Bizikidetzeta eta berdintasuneko harreman onen oinarriak ulertu eta horiek bideratzen dituzten arauak barneratu.
- Ikasgelan zein gizartean dagoen aniztasuna ezagutu, ulertu errespetatu eta positiboki baloratu.
- Indarkeria matxista sustatzen dituzten ereduak (gizontasun eta mendekotasun estereotipoak) baztertu, guztiontzat negatiboak direlako.
- Bikotearen harremanetarako begirunea eta berdintasuna ezinbesteko osagaiak direla ulertu.
- Pertsonen prestakuntza osorako eta pertsonen arteko harremanetarako -baita giza- eta gizarte-balioetan ere- hezkuntzak duen garrantziaz jabetu.
- Sexuen arteko berdintasunari buruzko hiztegia ikasi eta erabili.

Lehen saioa

Gelakide guztiek [INDARKERIA MATXISTAREN AURKA, KOEDUKAZIOA](#), bideoa ikusiko dute.

Ondoren, ikusitakoari buruzko iritzia eman dezatela eskatuko zaie ikasleei. Helburua zera da: bideoan azaldutako kontzeptuei buruz (indarkeria matxistaren aurka; bisibilizazioa; estereotipoak kanpora; sentsibilizazioa, prebentzioa; jardunbidea; hezkuntza baliabideak; begirunean hezi, gatazken konponketa baketsua; harreman demokratiko eta berdintasunezkoak; berdintasunean hezi), eztabaida sortu. Horretarako partaidetza bultzatuko da galdetuz zergatik uste duten azpimarratutako alderdiak garrantzitsuak direla.

Bigarrenik, 4 edo 5 partaidetako taldetxoetan, indarkeria matxistaren definizioa burutuko dute, gertaera hauei gizartean ematen dizkiegun izen anitzen arteko aldeetan erreparatuz (indarkeria matxista, etxeko indarkeria, genero indarkeria...)



Definizio horiek taldean aztertuko dira, ahal bada, taldeak idatzita jasoko duen bere definizio propioa lor dezan.

Hirugarrenik, emakumeen eta gizonezkoen benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 2007/3 Lege Organikoaren hezkuntzari buruzko artikulua irakurriko dira (II eranskina). Labur, ondoko honi buruzko eztabaida sortuko da: indarrean dauden arauak ikastetxean betetzen diren ala ez.

Emakumeen eta gizonezkoen benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 2007/3 Lege Organikoa gelan azaldu ondoren, zera proposatuko da: legeak ezarritako neurriek ikastetxean duten betetze-maila, taldean ikertzea, hurrengo saioan komentatu ahal izateko. Horretarako, 4 edo 5 partaidetako talde bakoitzari aipatu legearen artiku bat eskuratuko zaio (I eranskinaren E orria).

Bigarren saioa

Bata bestearen ostean, taldeek gelako gainerakoei kontrastatzeko egokitu zaien artikulua eta ikerketaren emaitzaren berri emango die. Konklusio guztiak ezagutu ondoren, gelako taldeak indarkeria matxistaren aurkako borrokan hezkuntzak duen papera eta garrantzia aztertuko du.

Bi saioetan landutakoarekin ikasleek hormairudi bat egingo dute. Bertan, zera ipiniko da: adostutako indarkeria matxistaren definizioa; araudiaren arabera, zer hobetu behar den berdintasunezko, begirunezko eta sexista ez den hezkuntza sustatzeko eta, legean ez egon arren, beren ustetan, zer egin daitekeen indarkeria hori ekiditeko, bikote- eta pertsonen arteko gainerako harremanak barne. Hormairudia gelan geratuko da, taldeak erabiltzen duen gelan edo ikastetxearen edozein esparru aproposan.

Ebaluazioa

Zera baloratuko da: ondorengo honen ulermen maila eta praktika:

- Talde lana, ordenaz eta begirunez.
- Matxismoaren eta indakeria jokabideen detekzio eta gaitzespena.
- Begirunezko eta berdintasuneko jokaera positiboetatik abiatuta, gizarte- eta bikote-harremanak eraikitze beharra.
- Gatazka egoerak elkarrizketaren bidez konpontzeko beharra.



Eranskinak

Proposatutako jardueren laguntza gisa, zenbait agiri txertatzen dugu:

I Eranskina: Ikasleen taldekako lanerako A, B, C, D eta E orriak.

II Eranskina: Emakumeen eta gizonezkoen benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 2007/3 Lege Organikoa, Bigarren Hezkuntzako taldeetan lantzeko.

III Eranskina: Genero indarkeriagatik 2014an hildakoen datuak. Bigarren Hezkuntzako geletako eztabaidak aberasteko.

IV Eranskina: “Genero indarkeriarekin bukatu?” Marina Subirats-ek indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko koedukazioaren garrantziari buruzko hausnarketak.

V Eranskina: Ikastetxeetan azaroan lantzeko gure erakundeek egindako beste proposamen:

- “Indarkeriaren aurka elkartuz, berdintasunari aukera ematen diogu” (Cordobako CC OOeko Irakaskuntza Sindikatua).
- Gaztela eta Leongo CC OOeko Irakaskuntza Federazioaren kontakizun laburren I Lehiaketa.

VI Eranskina: Interesa duten estekak: Indarkeria Matxistari eta koedukazioari buruzko interesa duten web orri eta dokumentuetarako sarbidea.



irakaskuntza